- Saiakuntza bidez egiaztatu babeserako betaurreko eta partxeek betetzen dituztela izpi ultramoreentzako eskakizunak; eta
- Zerbitzu horiek ematen dituztenek eduki behar dituzten prestakuntza eta akreditazioa.

#### **Aurreikusitako laginketak**

Arauzko 20 lagin hartzea, establezimenduetan bezeroen eskura dituzten babeserako betaurreko eta partxeen artetik. Partxeak ale askoko ontzietan saltzen dira eta zinta itsaskorrekin egoten dira lotuta.

#### **Establezimenduak**

Edergintza-zentroak, solariumak, gimnasioak eta ile-apaindegi eta lurrindegiak.

Euskadi osorako aurreikusitako ikuskapen-protokoloak: 125. A-protokoloa egingo da establezimendu bakoitzean, eta B-protokoloa, berriz, ikuskatutako aparatu bakoitzerako.

Kanpainak izaera zehatzailea du, erabiltzaileari informazioa emateari buruz araudian jasotzen denarekin zerikusia duten protokoloaren puntu guztietan.

Kontsumo-agintaritzak pertsonen osasunerako hur-hurreko arriskua edo arrisku larria duten gertakarien berri emango dio osasun-agintaritzari. Era berean, beltzarantzeko aparatuen mantentze-lanekin zerikusia duten irregulartasunak atzematen badira, Industria Sailari emango zaio horren berri.

## **Noiz egin den**

2011ko apirilaren 14tik maiatzaren 10era bitartean, biak barne.

## **Emaitzak**

Solarium, edergintza-zentro eta ile-apaindegietan egin dira, batez ere, ikuskapenak.

127 dira bete diren 4A-protokoloak: araudiko eskakizunak betetzeko, establezimendu horiek eduki behar duten informazioari eta gainerako dokumentazioari loturiko alderdiekin dute zerikusia.

232 dira prestatu diren 4B-protokoloak, ikuskatutako establezimenduetako beltzarantzeko beste hainbeste aparatari dagozkienak, aparatuak egiaztatzearekin eta horien CE markarekin zerikusia dutenak.

Inongo protokolorik eta laginketarik egin ez den 35 ikuskapen-jardun egin dira, ikuskatu beharreko establezimenduak itxita zeudelako edo jardunari utzia ziotelako edota laginak hartzeko objektuak topatu ez direlako.

Establezimendu horietan hainbat kontrol-kanpaina egin ondoren, badira, oraindik ere, arauak exijitutako informazio-kartelik jarri ez duten zentroak. Bestalde, kartelak badituzten zenbait zentrotan ez dute informazio guztia jarri, hots, kontsumitzaileen osasuna eta segurtasuna babesteko ezinbestekoa dena falta da (adib.: erradiazio ultramoreek azaleko minbizia eragin dezakete eta begiak larriki zauritu ditzakete)

Badira establezimendu batzuk azaleko fototipoari eta eraginpean egoteko denborari buruzko taula osoak ez dituztenak, eta batzuk ezta araudiak eskatzen duen bezero bakoitzaren fitxarik ere. Informazio hori garrantzitsua da, hain zuzen, bezeroak jakiteko, zein arrisku dakartzan izpi ultramoreen eraginpean gehiegi edota behar adina arduratu gabe egoteak.

Publizitateari dagokionez, hori agertzen duten zenbait zentrotan akatsak ikusi daitezke, pertsonaren osasunean erasan dezaketela (adib.: eragin batzuk osasunerako sendagarri, prebentziozko edo onuragarri izan daitezkeela aipatzen da, eta batere arriskurik ez ote duen ere bai).

Beltzarantzeko aparatuak maneiatzen dituzten langile gehienek badute beharrezko prestakuntza jaso izanaren ziurtagiria; dena den, argi geratu da batzuk ez daukatela.

Akatsak ikusi dira erakusten dituzten salmentako prezioetan eta erreklamazio-erriak badirela azaltzeko informazio-karteletan.

Aparatuak egiaztatzeari dagokionez, batzuetan ez bada CE markarik ikusi ere, ikuskatutako aparatu gehientsuenek dute egiaztatu izan denaren eta eskatutako datu guztiak betetzen dituztenaren etiketa. Egiaztapena aldeko izan ez den aparatuetan, gehienek daukate aldekoa izan ez dela adierazten zuen etiketa gorria.

Lagin batzuen etiketa eta erabilera-oharrak ez daude hizkuntza ofizialean.

Laginketaren emaitzak:

Babeserako betaurreko eta partxeen 18 lagin bidali dira laborategira, eta hauek izan dira emaitzak:

- 10 laginek emaitza zuzenak eman dituzte.
- 3 laginetan akatsak ikusi dira, araudiak definitzen duen "ikusgai"ko transmisio-koefizientea zehazteari dagokionez.
- 5 laginen etiketetan akatsak zeuden.

Hutsegite horien berri eman zaie produktuen arduradunei, lehenbailehen konpondu ditzaten.

### **Neurri zuzentzaileak**

Irizten da zigortu egin behar direla ikuskapena egin zaien establezimenduetan atzemandako akats guztiak diren; daukaten informazioarekin, erabiltzaile bakoitzaren fitxarekin, dokumentazioarekin eta erakusten duten publizitatearekin zerikusia duten alderdietan atzemandakoak; akats horiek erabiltzaileen osasunari erasan diezaiokete eta.

Aparatuak erabiltzen dituzten langileen prestakuntza eta horien egiaztapenetan aurkitutako irregulartasunen berri emango zaie Osasun Sailari eta Industria Sailari, hurrenez hurren.

### **3.1.6. Publikoarentzako Salmenta-Prezioen (PSP), ordutegi komertzialen eta erreklamazio-orrien kontrolatzeko kanpaina**

#### **Programazioa (2011ko maiatzak 30 – ekainak 3)**

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko Merkataritza Zuzendaritzak eta Kontsumobidek aztertu zuten ea komeni zen kontrol-kanpaina bat egitea, bi zuzendaritzetako ikuskatzaileek gauzatuko zutena.

#### **Helburuak**

Ondorengo alderdi hauek egiaztatzea:

- Publikoarentzako salmenta-prezioa (PSP) ikusgai jartzea erakusleihatetako artikulu bakoitzean.
- Komertzio-ordutegiak ikusgai jartzea (irekiera-egunak eta -datak)
- Erreklamazio-orriak badituztela iragartzen duen kartela jartzea.
- Erreklamazio-orriak edukitzea.

#### **Establezimenduak**

Ehungintza, oinetako eta osagarrien (opari, poltsa, imitaziozko bitxi eta erlojuak) sektoreei dagozkien establezimenduak.

Egiteko aurreikusitako ikuskapen-protokolo kopurua: 360.

Kanpainak izaera zehatzailea du, eta Zuzendaritza bakoitzak egoki diren zehapen-espeditenteak hasiko ditu, bere eskumenen arabera.

## **Noiz egin den**

2011ko maiatzaren 30etik ekainaren 3ra bitartean, biak barne.

## **Emaitzak**

351 ekintza egin dira, akta eta ikuskapen-protokolo tarteko.

Zera egiaztatu da:

EAEko ikuskapena egindako establezimenduen %10,26k ez ditu ikusgai erakusleihoetan salgai dauden produktuen prezio guztiak.

Barruan ikusgai dauden produktuen prezioak ez daude egoki markatuta, edo ez daude ondo ikusteko moduan jarrita, establezimenduen %1,56an.

Establezimenduen %3,99k ez du komertzio-ordutegia ondo erakusten.

Establezimenduen %2,70ak ez du egoki betetzen erreklamazio-orriak badituztela iragartzen duen kartela jartzeko derrigortasuna, edota ikuskapen-unean, behintzat, ez zuten halakorik.

## **Neurri zuzentzaileak**

Ikuskapen-protokoloan deskribatutako edozein ataletan akatsak azaldu dituzten establezimenduak zigortu egin behar direla irizten da, arau-hausteez egindako taulen arabera.

Establezimendua neurri-zuzentzaileak hartzekotan dela edo hartu dituela ikusi bada ere ikuskapen-aktaren batean, uste da aurrezarritako zehazpen-irizpideei eutsi behar zaiela.

### **3.1.7. Osasungarri aitorpena duten elikagaiak etiketatzea eta horien osagaien kanpaina**

#### **Programazioa (2011ko irailak 1 – 9)**

Kanpainaren ondorioetarako, "propietate osasungarrien aitorpena" esatean zera ulertu behar da: elikagai-kategoria baten, elikagai baten edo horren osagaien eta osasunaren artean lotura bat badagoela baieztatzen, iradokitzen edo ulertarazten duen edozein adierazpen.

Aitortza horiek ez dira modu faltsu, zalantzazko edo engainatzailean erabili behar: zalantzarik ez sortzeko beste elikagai batzuen segurtasun edota nutrizio-egokitasunean; ez bultzatzeko edo onartzeko elikagai baten gehiegizko kontsumoa; ez baiezta, iradoki edo ulertarazteko dieta orekatu eta anitzak ezin dituela mantenugai-kopuru egokiak eman, orokorrean.

Arauk adierazten du, baita ere, propietate osasungarrien aitorpenak onartuko direla, baldin eta soilik baldin, ondorengo informazio hau sartzen badute, besteak beste, etiketetan, eta etiketarik ezean, aurkezpenean eta pulbizitatean:

- Dieta orekatu eta askotarikoak eta bizimodu osasungarriak duten garrantzia azalduko duen adierazpen bat.
- Zeintzuk diren beharrezko elikagai-kopuru eta kontsumo-patroi egokiak, adierazitako eragin onuragarria jasotzeko.
- Egoki balitz, elikagai hori kontsumitu ezin duten pertsonen zuzendutako adierazpena.
- Ohartarazpen egoki bat, gehiegi kontsumituz gero zenbait produktuk arriskuak ekar dezaketela dioena.

### **Helburuak**

Egiaztatu, dagokien saiakuntzekin, laginketa bidez kontrolatutako elikagaiek betetzen dituztela etiketa eta osagaien buruz araudiak exijitutako eskakizunak.

### **Aurreikusitako laginketa**

Bitamina eta/edo mineraldun esnearen 10 lagin-adierazle bilketa.

Behin laginak hartuta, Kalitatea kontrolatzeko ikerketa-zentroko laborategira bidaliko dira, analisia egiteko.

### **Establezimenduak**

Azalera handietako, supermerkatuetako eta/edo janarien banaketa-kateetako elikadura-sailak.

### **Noiz egin den**

2011ko irailaren 1etik 9ra bitartean, biak barne.

### **Emaitzak:**

Saiakuntzak guztiek emaitza egokiak izan dituzte; agerian utzi dute produktu horien etiketan datorren informazioak betetzen duela arautegian xedatutakoa.

## **3.1.8. Eskaileren etiketak kontrolatzeko kanpaina**

### **Programazioa (2011ko irailak 6 – 12)**

Kanpaina hori Europar Batasunak programatutakoen —estatu kide guztiek egiteko— esparruan dago.

Fase horretan, zera kontrolatuko da: etxeko eskailera-mota zehatz baten etiketak, erabilpen-jarraibideak eta ea piktogramarik baduten.

Industria-produktuen etiketa orokorrean gain, tresna horiek UNE-arauak izaten dituzte, etiketen eskakizunak eta baliodun saiakuntza-metodoak zehazten dituztenak, eskaileren segurtasuna egiaztatzeko.

Ikuskatutako modelo bakoitzeko inkesta-protokolo bat betetzeko bidali du Batzordeak.

## **Helburuak**

Egiaztatzea ondoren deskribatutako eta kontsumitzaileentzat salgai jarritako eskailera-motek ea badaukaten ezarri behar zaizkien UNE-arauekin bat datozen markarik edo erabilpen-jarraibiderik.

Eskailera-motak: Artazizko eskailera mailadunak, edo *step ladres*, eta eskailera zabalgarriak edo *extension ladres*.

## **Establezimenduak**

Brikolaje-dendak, azalera handiak, burdindegiak eta prezio txikiko salgaiak dituzten dendak.

Kontrolatu beharreko produktuak: 4 produktu; aipatutako eskailera bakoitzari bina ikuskapen dagozkiolarik.

Kanpainak aurrera begirako izaera du.

## **Noiz egin den**

2011ko irailaren 6tik 12ra bitartean, biak barne.

## **Emaitzak:**

Sei ikuskapen egin dira, beste horrenbeste establezimendutan. Bitan ez da aurkitu ikuskatzera joandako eskailerarik.

Lau protokolo egin dira, eta aurreikusitako helburuaren % 75 lortu da.

Ikuskatutako eskaileren % 75etan ageri dira marka, modelo, eskaileraren erreferentzia-zenbakia eta fabrikatzailearen izena eta helbidea.

Ikuskatutako eskailera guztietan behar bezala ageri da eskailerak zer tamaina duen, bai eta produktuaren, enbalajearen edo etiketaren gainean agertu behar diren piktogramak ere.

Kontrolatutako eskaileren % 75etan erabilera-jarraibideak hizkuntza ofizialean daude idatzita, eta ageri da publikoarentzako salmenta-prezioa ere.

Ikuskatutako eskaileren % 10ek produktua egiaztatzeke erakunde batek emandako marka du.

Kontrolatutako produktuen % 100ek egiten dio erreferentzia etiketan UNE arauri bati.

Kontrolatutako produktuen % 75etan, begiratu hutsean, ez da ertz zorrotzik, haustura-punturik edo saihets zitekeen harrapatze-punturik ageri.

Ikuskatutako establezimendu guztietan ageri da erreklamazio-orriak badituztela dioen kartela, eta guztiek dituzte orri horiek.



Azaldutako datuetatik ondoriozta daiteke ikuskatutako eskaileren etiketak bat datozela arauetan eskatutakoarekin, nahiz eta konpondu beharreko alderdiak dauden.

### **3.1.9. Laser-produktuen laginak hartzeko kanpaina. Imitaziozko armak.**

#### **Programazioa (2011ko irailak 6 – 12)**

Europar Batasunak programatutako kanpainen barruan, non Estatu kide guztiek parte hartzen duten, laser-produktuen laginak hartzeko kanpaina hori antolatu da.

#### **Helburuak**

Egiaztatzea produktuek betetzen dituztela ezartzekoak zaizkien segurtasun-arauak.

Egiztatzea etiketako datuak, gutxienez, hizkuntza ofizialean daudela.

Egiaztatzea produktu, enbalaje eta/edo jarraibide eta oharren dokumentuan datu teknikorik badatorren, zein motatako laserra den, zer potentzia duen, zein den uhinaren luzera eta abar azaltzen duenik.

#### **Aurreikusitako laginketak**

Euskadiri laserrezko imitazio-armen arauzko bi laginketa egitea dagokio.

#### **Establezimenduak**

Armategiak, denda berezituak, azalera handietako kirol-atalak, bazarrak eta prezio txikiko dendak.

#### **Noiz egin den**

2011ko irailaren 6tik 12ra bitartean, biak barne.

#### **Emaitzak:**

- 7 bazar edo prezio txikiko denda ikuskatu dira, baina ez da aurkitu laginak hartu nahi ziren objekturik.
- 2 arma-denda ere ikuskatu dira, baina ez da ikuskatu nahi zen produkturik aurkitu.
- Lagin bat hartu da, hau da, aurreikusitako programazioaren % 50, prezio txikiko establezimendu batean, eta saiakuntzen emaitzen zain gaude.

### **3.1.10. Ikuspen handiko txaleko islatzaileak kontrolatzeko kanpaina**

#### **Programazioa (2011ko irailak 15 – 27)**

Kanpaina hori beste autonomia erkidego batzuekin eta INCRekin (Nazioko kontsumo-institutua) koordinatuta antolatzen diren programen esparruan dago.

Kontrolatu beharreko produktua II motako norbera babesteko ekipamendua (NBE) da eta, funtsezko eskakizunekin bat datorrela irizten da, baldin eta CE markadun txalekoa baldin bada, eta fabrikatzaileak marka hori kreditatu baldin badezake kontrol-organismoaren adostasun-aitorpen eta ziurtagiri bidez, horiekin azaltzen baita ereduazko CE-azterketan adostutako arauetikiko onespena.

#### **Helburuak**

Egiaztatzea merkatuko txaleko islatzaile guztiek betetzen dituztela etiketa- eta segurtasun-eskakizunak, aipatutako arauetan jasotakoak; zehazkiago esanda, honako hauek:

- Denek edukitzea CE marka
- Derrigorrezko informazioa hizkuntza ofizialean ematea
- Ikuspen handiko ekipoak diren aitortena zuzena izatea.
- Jasotako laginek betetzea ezarritako etiketa- eta segurtasun-eskakizunak.

#### **Aurreikusitako laginketak**

Arauzko 5 laginketa, ikuspen handiko eta II motako txaleko islatzaileen beste bost produkturi dagozkienak.

#### **Establezimenduak**

Azalera handiak, automobilentzako pieza aldagarrien dendak, denda berezituak, *Dena ehunean* dendak, handizkako establezimenduak, babeserako eta lanerako eta eraikuntzako eta herri-lanetako materiala saltzen duten establezimenduak.

Aurreikusitako ikuskapen-protokoloak: 15 protokolo

#### **Noiz egin den**

2011ko irailaren 15etik 27ra bitartean, biak barne.

#### **Emaitzak**

1.- 15 ikuskapen-protokoloak egin dira, eta programatutako arauzko 5 laginak ere hartu dira, eta, beraz, programatutako helburuaren % 100 bete da.

Azalera handiko establezimenduetan, autoetarako ordezkio piezak saltzen dituzten dendetan, eta prezio txikiko dendetan egin dira jarduerak.

2.- Ikuskatutako txaleko guztiek zuten EE marka.

3.- Etiketetan nahitaezko informazioa. Ikuskatutako txalekoen % 94,57tan azaltzen dira etiketan fabrikatzailearen datuak, marka, txalekoaren neurria, aplikagarri zaion UNE araua, garbitzeko jarraibideak, mantentze- eta garbiketa-lanak nola egin.

4.- Ikuskatutako produktuen % 60k ez du azaltzen informazioan fabrikatzailearen helbidea.

5.- Enbalatuta zetozen txaleko guztiek (% 33,33k) zuten enbalajearen EE marka.

6.- Fabrikatzailearen informazio-liburuxka.

Txalekoen % 83,33k ematen ditu fabrikatzailearen identifikazio- eta helbide-datuak.

Erabilera-, mantentze-lanetako, biltegitzeko eta garbitzeko argibideak behar bezala ageri dira txalekoen % 93,33tan.

Fabrikatzaileak, informazio-liburuxkan, identifikazio-datuen, helbidearen eta txalekoak aplikagarri zaizkion UNE arauak betetzen duela egiaztatu duen jakinarazitako kontrol-erakundearen identifikazio zenbakiaren berri eman behar du. Datu horiek zuzen ageri dira ikuskatutako produktuen % 44,44tan.

Liburuxka hizkuntza ofizialean dator kasuen % 100ean, eta informazioa argi eta zehatz ageri da produktu guztietan.

Liburuxken % 80k UNE arauaren zenbakiari eta urteari buruzko informazioa ere sartu du, bai eta txalekoaren ehun-osaeraren berri ere.

7.- Txalekoaren diseinu-betekizunak.

Ikuskatutako txaleko guztietan inguratzen du hondoko materialak soina, banda guztiak dira 50 mm baino zabalagoak, eta arauak emandako konfigurazioaren arabera daude jarrita.

Ikuskatutako txalekoen % 26,67k jartzen du bandetan fabrikatzailearen izena, ikusteko, irakurtzeko eta ezabaezinezko moduan.

8.- Publikoarentzako salmenta-prezioa

Txaleko guztietan ageri da produktuan bertan publikoarentzako salmenta-prezioa.

9.- Erreklamazio-orriak

Ikuskatutako establezimenduen % 93,33k zituzten erreklamazio-orriak, eta orri horiek badituztela adierazten zuen kartela.

### **Laginak hartzea**

Hartutako bost laginetatik bik segurtasun-falta agertu dute; erretiratu egin dira merkatutik eta alerta-sarearen sistemara sartu. Gainerako hiru laginek etiketa-akatsa zuten, eta beste autonomia erkidego batzuetako kontsumoko zuzendaritzeari eman zaie horren berri.

### **Ekintza zuzentzaileak**

Ikuskatutako establezimendu batek uko egin dio behin eta berriz ikuskapen-zerbitzuarekin kolaboratzeari, eta ez dio eman eskatutako informazio eta dokumentaziorik; horrenbestez, balioetsi egin behar da zehapen-espeditzeari hasiera eman behar zaion.

Ikuskatutako zenbait establezimendutan adierazi digute produktu hori dagoeneko ez dutela saltzen. Dena den, ibilgailuan nahitaez eraman behar den produktu bat denez eta banakoa babesteko ekipotzat hartzen denez, aplikagarri zaizkion UNE arauetan eskatutako betekizun guztiak bete behar ditu.

Horrenbestez, atzemandako irregulartasun guztien berri eman zaie produktuen arduradunak dauden autonomia erkidegoetako kontsumo-zuzendaritzei. Orain arte, 8 komunikazio egin dira.

### **3.1.11. Txikizkako saltokiko titularrak ontziratutako elikagaien etiketak kontrolatzeko kanpaina**

#### **Programazioa (2011ko urriak 6 – 16)**

Hainbat Autonomia Erkidegoen eta INCren artean antolatutako kanpainen barruan, txikizkako saltokietako titularrak ontziratutako elikagaien etiketetan azaltzen den informazioa kontrolatzeko kanpaina programatu da.

#### **Helburuak**

Egiaztatzea txikizkako saltokiko titularrak ontziratutako elikagaiak eta kontsumitzailearentzat zuzenean saltzen jarri direnak betetzen dituztela etiketa-eskakizunak, elikagaiak etiketatze, erakuste eta iragartzeko arau orokorraren 5. eta 16. artikuluetan ezarrita bezala.

#### **Establezimenduak**

Era horretako produktuak dituzten txikizkako saltokiak, supermerkatuak, azalera handietako elikagai-zerbitzuak eta elikagaietan berezitutako establezimenduak.

Aurreikusitako ikuskapen-protokolo kopurua: 15 laginketa, txikizkako saltokian bertan ontziratu eta berehala saltzeko diren produktuen artetik; establezimenduetako apaletan egon daitezkeen fruta, barazki, haragi, urdaitegiko produktu, produktu ketu, fruitu lehor, lekale eta bestelakoak.

Kanpainak informazio-izaera du.

#### **Noiz egin den**

2011ko urriaren 6tik 16ra bitartean, biak barne.

#### **Emaitzak:**

Ikuskapenaren emaitzak aztertuta, hau ikusi da:

17 ikuskapen-jarduera egin dira, eta programatutako 15 ikuskapen-protokoloak burutu, hautatutako establezimenduen artetik. Horiek izan dira: supermerkatuak, azalera handietako elikadura-atalak eta txikizkako establezimenduak. Ikuskatutako 2 establezimendutan ez zegoen txikizkako saltokiaren titularrak ontziratutako elikagairik.

Produktu hauek ikuskatu dira, besteak beste: xarkuteria-produktuak, frutak eta etxeko azkenburukoak.

Ikuskatutako produktuen % 93,33k etiketa du.

Ikuskatutako produktuen % 73,33tan ontziratzailearen identifikazio-datuak ageri dira.

Ikuskatutako produktuen % 66,67tan osorik ageri da produktuaren salmenta-izena.

Osagai-zerrenda eta kantitate garbia, masan edo bolumenean, ageri da ikuskatutako produktuen % 80tan.

Produktuen % 86,66tan ageri da gutxieneko iraupen-data, edo, bestela, iraungitze-data.

Kontserbazio- eta erabilera-baldintza bereziak ageri dira ikuskatutako produktuen % 60tan.

Etiketetan agertu beharreko jarraibideei buruz, hau egiaztatu da:

Etiketetan % 80, ondo ikusten eta irakurtzen dira eta ezabaezinak dira.

Kasuen % 86,67tan ikus-eremu berean ageri dira izenari, kantitate garbiari eta datei buruzko argibideak.

Produktuen % 93,33k etiketaren barneko nahitaezko argibideak Estatuko hizkuntza ofizialean ageri dituzte.

Produktuen % 86,67k markatua du publikoarentzako salmenta-prezioa.

Ikuskatutako establezimenduei buruz, % 93,33k badu erreklamazio-orriak badituztela dioen kartela, eta guztiek dituzte erreklamazio-orri horiek eskura.

### **Ekintza zuzentzaileak**

Azaldutako emaitzetatik ondoriozta daiteke protokolo-itemen % 85,72 ondo ari dela erantzuten.

Irregularitasunak aurkitu zaizkien establezimenduei etiketan atzemandako ez-betetzeak konpontzeko eskatu behar zaie.

### **3.1.12. Zerbitzu-emaileak erabiltzaileari bere identifikazio-datuak eta harremanetarakoak emateko duen betebeharra kontrolatzeko kanpaina**

#### **Programazioa (2011ko urriak 20 de- azaroak 7)**

Zera dio azaroaren 23 17/2009 Legeak, zerbitzuetako jardueretara libreki sartzeari eta horietan aritzeari buruzkoak: Aplikatzekoa den kontsumitzaile eta erabiltzaileak babesteko legeak ezarritako informazioa emateko betebeharra eragotzi gabe, zerbitzu-emaileek, behar besteko aurrerapenez, hartzaileen esku jarriko dituzte norberari buruzko datuak (identifikaziozkoak, fiskalak, helbidearenak,) argi eta garbi, kontratua egin baino lehen, edo hala beharko balitz, zerbitzua eman aurretik.

### **Helburuak**

Ondorengo alderdi hauek kontrolatzea:

- Zerbitzu-emailearen nortasun-datuak
- Emailearen araubide juridikoa
- Identifikazio Fiskaleko Zenbakia.
- Establezimenduaren helbide osoa.
- Zerbitzu-emailearekin berehala harremanetan jartzeko datuak (telefonoa, e-posta, faxa...)

### **Establezimenduak**

Higiezin agentzia, bidaia-agentzia, hileta-zerbitzuen enpresa, etxebizitzak birgaitzeko eta gremioak koordinatzeko enpresa, ibilgailuak alokatzeko enpresa, ekipo informatikoen eta etxe-tresna elektrikoek mantentze-lanak eta konponketak eta auto-konponketak egiten dituzten enpresak, besteak beste.

Aurreikusitako ikuskapen-protokolo kopurua.

### **Noiz egin den**

2011ko urriaren 20tik azaroaren 7ra bitartean, biak barne.

### **Emaitzak:**

20 ikuskapen-protokolo egin dira hainbat jardueretako enpresatan: bidaia-agentziak, higiezin agentziak, ibilgailuak alokatzeko enpresak, etxebizitzak berritzeko enpresak, etxetresna elektrikoak konpontzeko enpresak, sistema informatikoen enpresak eta oinetako enpresak. .

Establezimendu guztiek betetzen dituzte kontratu bat egin edo zerbitzu bat eman aurretik kontsumitzaileei eman beharreko informazio-baldintzak: zerbitzu-emailearen identifikazio-datuak, araubide juridikoa, identifikazio fiskaleko zenbakia, establezimenduaren helbide osoa eta erabiltzailea zerbitzu-emailearekin berehala harremanetan jarri ahal izateko datuak.

Ikuskatutako establezimendu guztietan ageri da erreklamazio-orriak badituztela dioen kartela, eta guztiek dituzte orri horiek.

### **3.1.13. Etiketak eta jostailuen segurtasuna kontrolatzeko kanpaina**

#### **Programazioa (2011ko azaroak 21 – abenduak 10)**

Aurtengo bigarren hiruhilekoan indarrean jarri da jostailuen segurtasunari buruzko araudi berria (1205/2011 Errege Dekretua, abuztuaren 26koa, jostailuen segurtasunari buruzkoa). Hori dela eta, beharrezkoa da ikuskatzea, uztaila baino lehen merkatuan kontsumitzaileei saltzeko prest dauden jostailuak, baita inportatu direnak eta 2011ko irailaren 1etik aurrera inportatzaileek banatzeko prest daudenak ere.

#### **Helburuak**

- Jostailuen etiketek araudi berriari zein neurritan betetzen duten egiaztatzea.
- 2011. urtea baino lehen indarrean zegoen araudiaren arabera, merkatuan eskuragarri jarri ziren jostailuen adostasun-maila egiaztatzea.
- Jostailuei arauzko laginak egitea, aplikatu behar den araudia kontuan izan gabe.
- EAEko jostailu-inportatzaileei jostailuei buruzko araudi berria argitaratu dela jakinaraztea.

### **Establezimenduak**

Jostailuen inportazio-enpresak, prezio baxuko txikizkako establezimenduak eta bazarrak.

## **Noiz egin den**

2011ko azaroaren 21etik abenduaren 10era bitartean, biak barne.

## **Emaitzak:**

### **1. atala: Jostailuen etiketak arautegi berrira egokitu diren egiaztatzea eta zenbateraino egokitu diren ikustea.**

11 ikuskapen-jarduera egin dira jostailuak inportatzen dituzten EAeko beste hainbeste enpresatan. 8 establezimendutan ez da 2011ko irailaren 1az geroztik erositako jostailurik aurkitu. Gainerako 3 establezimenduetan 6 jostailu-protokolo bete dira.

Protokoloen emaitzak izan dira:

### **A zatia: Ezinbesteko etiketatzea:**

- Ikuskatutako jostailu guztiek zuten EE marka.
- Ikuskatutako jostailu guztiek ematen dute honi buruzko informazioa etiketan: marka, identifikazio-datuak eta fabrikatzailearen eta inportatzailearen helbideak, lote-zenbakia, jostailu-mota edo modeloa, hobeto identifikatzeko. Oharrak ikusteko eta irakurtzeko moduan ageri dira jostailuan, etiketan edo enbalajearen. Ohar bakoitzaren aurretik ageri dira "Oharra" edo "Oharrak" hitza, eta ohar guztiak, gutxienez, hizkuntza ofizialean ematen dira. Ikuskatutako jostailu elektrikoetan ageri da tresna elektrikoaren bilketa selektiboari buruzko sinboloa.

### **B zatia: Jostailu-motak eta oharrak**

1205/2011 Errege Dekretuak jostailu-mota bakoitzerako ohar-betekizun batzuk xedatzen ditu, 36 hilabetetik beherakoentzat edo gorakoentzat diren, jarduera-jostailuak diren, funtzionalak, irristailuak, irristailu gurpildunak, lerro-irristailuak, uretan erabiltzeko jostailuak, elikagaien barnean datozen jostailuak eta maskara edo babes-kaskoak imitatzen dituzten jostailuak diren.

Ikuskapen horretan, kontrolatutako jostailu guztietan ageri da 36 hilabetetik beherakoentzat ez diren jostailuak direla dioen oharra.

Gainerako oharrei buruz esan behar da, ikuskatutako jostailuak aurretik deskribatutakoak ez direnez, nahitaezko etiketa dutela soilik.

Jendeari saltzeko eremua duten establezimenduek badute erreklamazio-orriak dituztela dioen kartela, baita orriak berak izan ere, eta jostailuetan ageri da publikoarentzako salmenta-prezioa.

### **Laginak hartzea**

Arauzko 3 lagin-hartze egin dira, hiru jostailu-motetan. Emaitzak egokiak izan dira.

### **Ondorioak**

Egiaztatu da 2011ko irailaren 1az geroztik inportatu diren jostailuek badutela 1205/2011 Errege Dekretuan xedatutakoarekin bat datorren etiketa.

Dena den, uste da mota eta funtzionalitate desberdinetako jostailuak ikuskatzen jarraitu beharra dagoela, arautegi berrian xedatutakora egokitzen diren egiaztatzeko.

Komenigarria litzateke jostailu-mota bat baino gehiagotako laginak hartzea, ezarritako segurtasun-irizpideak betetzen dituzten jakiteko.

Enpresa inportatzaileei adierazi zaie indarrean sartu dela 1205/2011 Errege Dekretua, jostailuen segurtasunari buruzkoa.

## **2. atala: 2011 baino lehen zegoen arautegiaren arabera merkatuan jarritako jostailuen adostasun-maila egiaztatzea.**

- 62 ikuskapen-jarduera egin dira, protokoloak eta lagin hartzean batuta.
- 50 protokolo bete dira, beste hainbeste jostailutan.

Protokoloen emaitzak izan dira:

- Ikuskatutako jostailu guztiek zuten EE marka.
- Kontrolatutako jostailu guztiek zituzten fabrikatzailearen edo inportatzailearen identifikazio- eta helbide-datuak.
- 36 hilabetetik gorako haurrentzako jostailuen % 98k adierazten du, hitzez edo sinboloz, ez direla egokiak 36 hilabetetik beherakoentzat.
- 36 hilabetetik gorakoentzat diren kontrolatutako jostailuetatik % 94k du testu bat non azaltzen den zer arrisku dakartzan 36 hilabetetik beherako haurrei uzteak.
- 12 jostailu elektriko kontrolatu dira. Guztiek adierazten dute zer tentsio elektrikorekin funtzionatzen duen jostailuak eta ageri dute tresna elektrikoen bilketa selektiborako sinboloa.
- Jostailu funtzionaletan esaldi honek agertu behar du: "*OHARRA! Heldu baten zaintzapean soilik erabiliko da*". Ezaugarri horiek dituzten kontrolatutako 6 jostailuek betetzen dute baldintza hori.
- Ikuskapen honen helburu izan diren jostailuen % 88k oharrak eta erabilera-jarraibideak gutxienez hizkuntza ofizialean agertzen dituzte.
- Arduradunaren identifikazio-datuak, EE marka eta jostailuen segurtasunari buruzko testuak modu argian eta ikusteko moduan ageri dira jostailuan bertan, etiketan edo enbalajeon, ikuskatutako jostailu guztietan.
- Kontrolatutako jostailu guztiek ageri dute publikoarentzako salmenta-prezioa.
- Ikuskatutako establezimendu guztiek zituzten erreklamazio-orriak, eta orri horiek badituztela adierazten zuen kartela.

### **Laginak hartzea**

Arauzko 21 lagin hartu dira, beste hainbeste jostailu-motatan.

Laginek emaitza hauek izan dituzte:

- 15 laginek emaitza zuzenak eman dituzte (% 71,5).
- 4 laginek irregulartasunak zituzten etiketan. Produktuen arduradunak kokatuta dauden autonomia erkidegoetako kontsumo-zuzendaritzei hutsune horien berri emango zaie, komunikazio bidez, konpon ditzaten (% 19,50).



- Lagin bat merkatutik erretiratu egingo da, eta debekatu merkaturatzea, EE marka ez duelako, horrek ematen baitio jostailuari adostasun-irudipena (% 4,5).
- Lagin batek haurren osasunerako segurtasun-arazoak agertu ditu, eta alerta-sarearen sisteman jarri da produktua, merkatutik erretiratzeko (% 4,5).

### **Ondorioak**

Izandako emaitzetatik ikusten da ikuskapenaren bidez kontrolatutako jostailuen etiketek betetzen dituztela behar bezala aplikagarri zaizkien arauetan ezarritako betekizunak.

Jostailuen etiketetan ikusi da UNE-EN 71, 1. zatia, jostailuen segurtasunari buruzko arauan deskribatutako "Ohar" berriak sartu dituztela.

Dena den, produktuen arduradunak kokatuta dauden autonomia erkidegoetako kontsumo-zuzendaritzari atzemandako irregulartasunen berri emango zaie, komunikazio bidez, konpon ditzaten.

Ikuskatutako establezimenduei adierazi zaie jostailuen segurtasunari buruzko 1205/2011 Errege Dekretua indarrean sartu dela.

### **3.2. SOIVRE-REKIN KOORDINATUTAKO IKUSKAPEN-EKINTZAK**

2008ko otsailaren 28ko 330/2008 Errege Dekretuak, produktuen segurtasunaren arloan aplikatzekoak diren araei dagokienez produktu jakin batzuen inportazioa kontrolatzeko neurriak ezartzen dituenak, esaten du Lurralde eta Probintzietako Merkataritza Zuzendaritzetako SOIVRE ikuskaritza-zerbitzua dela inportatutako merkantzia saldu aurretik inportatutako produktuen segurtasun- eta etiketatze-gaietan aplikatu beharreko arauen araberrako adostasunaren kontrol-ekintzak egiteko ardura duen erakundea.

Kontrolatzen diren salgaiak eskatzen diren segurtasun-betekizunak betetzen ez dituztenean, "Ados ez" gisa sailkatuko dira, eta irregulartasun horiek enpresa inportatzaileari edo haren ordezkariari eta INCri jakinaraziko zaizkie, eta azken horrek, bere aldetik, produktuaren enpresa erantzulearen kokalekua dagoen autonomia-erkidegoari jakinaraziko dio. "Ez-adostasunak" etiketatzean oharrak sartuta konpon daitezkeenean, enpresa inportatzaileari edo haren ordezkariari jakinaraziko zaio, eta hark, "Ados ez" salgaiak merkaturatu aurretik, kontsumo-agintariei jakinarazi beharko die aurkitutako irregulartasunak zuzendu dituela, eta kontsumo-agintariak, salgaiak etiketatzean exijitutako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu ondoren, salgaiak merkaturatzeko baimena emango dute.

Hurrengo koadroan, INctik produktuen "Ez-adostasunen" jakinarazpenak jasotakoan Kontsumo Ikuskapenerako Zerbitzuek egindako ekintzak agertzen dira.

<b>SOIVREekin koordinatutako ekintzak</b>		
<b>Produktuak</b>	<b>Ekintzak</b>	<b>Kontrolatutako unitateak</b>
Ehun-gaiak, oinetakoak eta osagarriak	68	214.532
Jokoak eta jostailuak	10	32.755
Material elektrikoa	1	8.064
Altzariak	10	3.181
<b>Guztira</b>	<b>89</b>	<b>256.140</b>

### 3.3. JATEKOAK EZ DIREN PRODUKTUEN SEGURTASUN-KONTROLA

Europako Batasuna osatzen duten herrialdeen arteko mugak desagertzean eta zirkulazio librearen printzipioa ezartzean, jatorria Batasuneko edozein herrialdetan edo beste herrialde batzuetan izan dezaketen produktu ugari agertu dira merkatuan. Hori dela eta, beharrezkoa da produktu seguruak merkaturatzeko kontrol-mekanismoak indartzea; helburu hori Informazioa Azkar Trukatzeo Sistemaren bidez lortu da, eta sistema hori Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2001/95/EE Direktiban (2001eko abenduaren 3koa, produktuen segurtasun orokorrari buruzkoa) oinarritzen da. Direktiba hori produktuen segurtasun orokorrari buruzko 2003ko abenduaren 26ko 1801/2003 EDaren bidez aldatzen da gure antolamendu juridikora.

Gainera, AEBtik datozen oharrak kudeatzen dira, eta hango sarean (U.S. Consumer Product Safety Commission, CPSC) alerta jasotako produktuak gure herrialdean merkaturatzen diren egiaztatzen da.

Jarraian, jasotako alertak, alertak zabaldu dituzten herrialdeak eta alor horretan egin diren ikuskapen-ekintzak erakusten dituzten koadroak erantsi dira.

<b>PRODUKTU ALERTADUNEN JATORRIKO HERRIALDEA</b>					
	<b>Asiako herrialdeak</b>	<b>EB</b>	<b>Ezezaguna</b>	<b>Beste batzuk</b>	<b>Guztira</b>
Jokoak eta jostailuak	603	38	67	5	713
Ehun-gaiak, oinetakoak eta osagarriak	307	113	122	46	588
Material elektrikoa	262	20	39	3	324
Ibilgailuak	83	164	14	36	297
Produktu kimikoak	63	51	30	72	216
Etxetresna elektrikoak	87	8	12	5	112
Hautzaintza	52	31	12	10	105
Aisialdi- eta kirol-produktuak	48	19	17	0	84
Askotariko dekorazio-produktuak	47	5	25	2	79
Beste batzuk	36	3	7	3	49
Erremintak eta burdindegia	28	7	5	0	40
Altzariak	5	5	1	1	12
<b>Guztira</b>	<b>1.621</b>	<b>464</b>	<b>183</b>	<b>351</b>	<b>2.619</b>

<b>AURKITUTAKO ETA GURE MERKATUETATIK KENDUTAKO PRODUKTU ALERTADUNAK</b>		
<b>Produktu-mota</b>	<b>Aurkitutakoak</b>	<b>Merkatutik kendutako aleak</b>
Ehun-gaiak, oinetakoak eta osagarriak	10	7.616
Material elektrikoa	17	4.019
Aisialdi- eta kirol-artikuluak	2	3.222
Jokoak eta jostailuak	22	2.633
Etxetresna elektrikoak	8	2.214
Produktu kimikoak	6	205
Askotariko dekorazio-produktuak	2	112
Hurtzaintza	8	73
Erremintak eta burdindegia	5	79
<b>Guztira</b>	<b>80</b>	<b>20.173</b>

### 3.4. IKUSKAPEN-EKINTZAK

Guztira, Kontsumobidek 6.353 ikuskapen egin ditu, bai kanpainaren barrukoak, bai programatu gabeak; bigarren horien jatorriak hauek dira, nagusiki: salaketak, erreklamazioak, SOIVREekin elkarlanean egindako jarduerak, produktu irregularrak edo inhibizioak agertzea, eta autonomia-erkidegoen arteko komunikazioak.

Erantsitako koadroetan, egindako ikuskapen-ekintzak zehazten dira, lurraldearen arabera, aktak zein txostenak izan, arrazoiaren eta produktuaren/zerbitzuaren arabera sailkatuta.

<b>IKUSKAPEN-EKINTZAK ARRAZOIAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA</b>				
	<b>Araba</b>	<b>Gipuzkoa</b>	<b>Bizkaia</b>	<b>Guztira</b>
Erreklamazioa / Salaketa	1.120	1.288	1.707	<b>4.115</b>
Alerta-sarea	281	478	286	<b>1.045</b>
Kanpaina	231	277	509	<b>1.017</b>
Beste batzuk	26	63	87	<b>176</b>
<b>Guztira</b>	<b>1.658</b>	<b>2.106</b>	<b>2.589</b>	<b>6.353</b>

<b>IKUSKAPEN-EKINTZAK PRODUKTUAREN/ZERBITZUAREN ARABERA</b>				
<b>Produktua/Zerbitzua</b>	<b>Araba</b>	<b>Gipuzkoa</b>	<b>Bizkaia</b>	<b>Guztira</b>
Telefonia eta komunikazioa	619	756	817	<b>2.192</b>
Ehun-gaiak, oinetakoak eta osagarriak	106	147	222	<b>475</b>
Etzetresna elektrikoak	107	108	218	<b>433</b>
Jostailuak	119	121	191	<b>431</b>
Ibilgailuak (salmenta eta konponketa)	68	74	129	<b>271</b>
Material elektrikoak	54	77	69	<b>200</b>
Altzariak	33	56	64	<b>153</b>
Etxebizitza (sustapena, gremioak-konponketa)	18	57	39	<b>114</b>
Elikadura	22	23	65	<b>110</b>
Produktu kimikoak (kosmetikoak, drogeria y lurringaiak)	37	54	12	<b>103</b>
Tindategiak, garbitegiak	23	16	51	<b>90</b>
Energia-zerbitzuak (elektrizitatea, gasa, ura)	58	5	5	<b>68</b>
Garraioak	8	4	17	<b>29</b>
Askotariko produktuak	121	199	139	<b>459</b>
Askotariko zerbitzuak	176	259	501	<b>936</b>
Kodifikatu gabeak	89	150	50	<b>289</b>
<b>Guztira</b>	<b>1.658</b>	<b>2.106</b>	<b>2.589</b>	<b>6.353</b>

### 3.5. KOMUNIKAZIOAK

Salaketen, ikuskapen-ekintzen edo arau-hausteren bat eragin dezaketen gertaeren lekualdatzeak dira, enpresa erantzuleak helbidea beste autonomia-erkidego batean duenean egiten direnak. Hori dela eta, espedientea kontsumo-erakunde eskudunari bidaltzen zaio.

2011n, beste autonomia-erkidego batzuetako 45 komunikazio jaso ziren, eta 51 komunikazio bidali ziren beste autonomia-erkidego batzuetara. Hurrengo taulan, komunikazioen jatorria eta helmuga jasotzen dira:

<b>KOMUNIKAZIOAK</b>		
<b>Autonomia-Erkidegoa</b>	<b>Bidalitakoak</b>	<b>Jasotakoak</b>
Andaluzia	1	0
Aragoi	5	2
Asturias	0	0
Balearrak	0	1
Kanariak	0	0
Kantabria	1	0
Gaztela-Mantxa	1	6
Gaztela eta Leon	1	15
Katalunia	4	0
Ceuta	0	0
Madrilgo Erkidegoa	20	0
Valentziako Erkidegoa	13	9
Extremadura	1	0
Galizia	0	8
Errioxa	0	1
Melilla	0	0
Murtzia	4	1
Nafarroa	0	2
<b>Guztira</b>	<b>51</b>	<b>45</b>

#### **4. PRESTAKUNTZA ETA HEZKUNTZA**

Kontsumobidek – Kontsumoko Euskal Institutuak\* herritarrei zein kontsumoaren arloan lan egiten duten profesionali zuzendutako prestakuntza- eta hezkuntza-programak antolatzen ditu.

Herritarrei zuzendutako prestakuntza- eta hezkuntza-programen helburua da herritarrak kontsumitzaile gisa dituzten eskubide eta betebeharren alorrean kontzientziatu eta hezteko, produktuak eta zerbitzuak modu kritiko, kontziente eta arduratsuan kontsumi ditzaten.

Profesionalei zuzendutako programen helburua da administrazio-zerbitzuak eta kontsumo-erakunde eskudunak modu eraginkorrean artatzeko ezagutza eta gaitasunak birziklatu eta eskuratzea.

Herritarrak kontsumoaren alorrean prestatu eta hezteko, Kontsumobidek hiru programa ditu: Kontsumoaren Alorreko Prestakuntza Zentroak, Kontsumoko Prestakuntza Ikastetxeetan eta Kontsumoko Prestakuntza Adinekoen Zentroetan. Aurten, guztira, 55.589 pertsonak hartu dute parte hiru programa horietan (iaz baino 2.800 pertsona gehiago)..

Kontsumoaren alorreko profesionali zuzendutako prestakuntzari dagokionez, urtean zehar prestakuntza-programa jarraitu bat egiten da. 2011n, 96 pertsonak hartu dute parte.

##### **4.1. KONTSUMOAREN ALORREKO PRESTAKUNTZA ZENTROAK**

Kontsumobidek kontsumoaren alorrean trebatzeko hiru zentro ditu hiru lurralde historikoetako hiriburuetan.

Helburuak:

- Ikastetxeetan kontsumitzaileen heziketa dinamizatzea.
- Zenbait kolektibo eta elkarteri kontsumoarekin zerikusia duten trebakuntza-jarduerak egiteko aukera ematea.
- Kontsumoarekin zerikusia duten zenbait gairen tratamenduan teknologia berrien erabilera bultzatzea.
- Kontsumoari buruzko argitalpenak kontsultatzeko aukera ematea.

Zehazki, 31.851 pertsonak hartu dute parte Kontsumoaren Alorreko Prestakuntza Zentroen bidez eskaintzen diren trebakuntza- eta informazio-ekintzetan, hala nola tailerretan, hitzaldietan, kurtsoetan, erakusketetan edo jardunaldietan.

---

\* Atal honetan "Kontsumobide"-ri egindako edozein aipamen, Kontsumo Zuzendaritzari zuzenduko da ere (2011ko abuztuaren 31ra arte funtzionamenduan).

#### 4.1.1. Kontsumo-tailerrak

Ordu bat eta erdiko iraupena duten jarduera praktikoak dira, kontsumoaren alorreko gai jakin bati buruzkoak. Metodologia aktiboa erabiltzen da, eta gehienez ere 14 urtetik gorako 15 laguneko taldeei zuzenduta daude. Alor hauetako 45 tailer egiten dira:

1. Publizitatea
2. Etiketatzea
3. Erosketa
4. Elikagaiak
5. Ingurumena
6. Kontsumitzailearen eskubideak
7. Teknologia berriak
8. Finantza-zerbitzuak
9. Segurtasuna

Guztira, alor horiei dagozkien 2.051 tailer egin dira: 822 Bilbon, 813 Gasteizen eta 416 Donostian. 183 ikastetxek hartu dute parte: 116 irakaskuntza arautukoak, eta 67 irakaskuntza ez-arautukoak.

Gehien eskatu diren gaia hauek izan dira: elikagaiak, jasangarritasuna eta teknologia berriak.

Irakaskuntza ez-arautuko ikastetxeen artean, askotariko kolektiboek hartu du parte:

- Hezkuntzan eta gizartean oinarritutako interbentzioko kolektiboak
- Udako eskolak
- Akademiak
- Hezkuntza-behar bereziko zentroak
- Euskaltegiak
- Emakumeak sustatzeko zentroak
- Adineko pertsonen zentroak
- Birgizarteratzerako eta lanera itzultzeko kolektiboak

- Gurutze Gorria
- Harrera-etxeak
- Gaixo kronikoen senideen elkarteak
- Etorrinen kolektiboak
- Guraso-eskolak

#### **4.1.2. Hezitzaileentzako jardunaldiak**

Hezitzaileei (gurasoak, irakasleak, etab.) zuzendutako 16 jardunaldi egin dira, eta hauek izan dira gaiak:

- Zertan gastatzen dute belaunaldi berriek?
- Bideojokoak
- Segurtasuna Interneten
- Gazteak, publizitatea eta kontsumoa

#### **4.1.3. Mailegu-zerbitzuak**

Kontsumobideko prestakuntza zentroen mediateketan, liburuak, CD-ROMak, bideoak, jolasak eta multimediatikoa maleta didaktikoak mailegatzeko zerbitzua eskaintzen da.

Kontsumo arduratsuari eta publizitateari buruzko materiala izan da gehien eskatu dena.



## 4.2. KONTSUMOKO PRESTAKUNTZA IKASTETXEETAN

Kontsumobidek Kontsumoko Prestakuntza Ikastetxeetan programa egin du ondoko ondoko 22 urtetan.

Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Lehenengo Zikloko ikastetxeetara zuzenduta dago programa hori. Ikastetxea osatzen duten hiru kolektiboei zuzendutako jarduerak dira: ikasleak, irakasleak eta gurasoak. Metodologia aktiboa eta parte hartzekoa erabiltzen da, esperientziaz, praktikan eta talde-lanean oinarritutakoa.

Helburuak:

– Kontsumo-gizartean pertsona kritiko eta arduratsu gisa kokatzeko aukera emango dieten tresnak ematea ikasleei.

– Kontsumotik eratorritako fenomeno jakin batzuen aurrean erabakiak hartzeko prozesua erraztea.



Programa honen barruan, kontsumoari buruzko 2.540 tailer egin dira (2.298 Lehen Hezkuntzan, eta 242 Bigarren Hezkuntzan) Euskadiko 133 ikastetxetan; 20.542 ikaslek hartu dute parte, euren irakasleekin batera, eta 589 gurasok.

### 4.2.1. Ikasleak

32 tailer eskaintzen dira, ordu bat eta erdiko iraupenekoak, bi taldetan banatuta:

*Lehen Hezkuntza:*

1. Elikagaiak fabrikatzea
2. Elikagaien analisi konparatiboa
3. Supermerkatua eta erosketak
4. Elikagaien etiketak
5. Papera birziklatzea
6. Ontziak eta horien berrerabilpena
7. Lehengaiak transformatzea
8. Publizitatearen azterketa
9. Ura: kontsumoa eta aurrezteak
10. Energia

11. Ehunak
12. Umeen segurtasuna
13. Jolasa eta jostailuak
14. Garraio publikoa
15. Kontsumitzailearen eskubideak

*Bigarren Hezkuntza:*

1. Elikadura eta nutrizioa
2. Estetika eta elikadura: gorputza gurtzea
3. Elikagaien analisi konparatiboa
4. Etiketak
5. Kontsumoa eta ingurumena
6. Lehengaiak transformatzea
7. Publizitatea eta kontsumoa
8. Uraren kontsumo arduratsua
9. Energia-eraginkortasuna
10. Bidezko merkataritza
11. Telefonía eta Internet
12. Aisialdirako formula berriak
13. Osasuna eta segurtasuna
14. Ekonomia eta familiaren aurrekontua
15. Kontsumitzailearen eskubideak
16. Jokoak eta bideojokoak
17. Internet

#### 4.2.2. Irakasleak

Kontsumoari buruzko orientazio pedagogikoa eta ikasgelan lantzeko material didaktiko osagarriaren bidezko laguntza ematen dituen zerbitzua eskaintzen da.

Era berean, kontsumo-hezkuntzari buruzko aldizkari bat egiten da, tailerretan parte hartzen duten ikastetxeen ekarpenekin. Aldizkarian sei ikastetxek parte hartu dute, eta aldizkariak Euskadiko ikastetxeetan banatu dira.

#### 4.2.3. Gurasoentzako jarduerak:

Bost ekintza eskaintzen dira:

